

B

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Jardueraren
laburpena
2016



Aurkezpena	4
Eraren laburpena	6
Museoaren bisitariak eta erabiltzaileak hazten	6
Bilduma zabalagoak eta askotarikoak	7
dss2016.eu izatearen testuinguruan egindako erakusketak	8
Erakusketa espazioen ematea	10
Museoa gero eta nabariagoa da kanpoan	11
Argitalpen berriak	12
Modaren kultura baterako hezkuntza	14
Kultur aukerako gunea	16
Komunikazioa eta mundu digitala	17
Informazio ekonomikoa	18

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

1999an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan F-91 zenbakiarekin erregistratua, Fundación Cristóbal Balenciaga / Cristóbal Balenciaga Fundazioaren helburua da Getarian sortutako Cristóbal Balenciaga Eizaguirre moda-sortzaileak eta bere nortasunak modan, goi-mailako jostintzan eta jantzien diseinuan izandako garrantzia sustatzea, hedatzea eta indartzea.

Hauek dira Fundazioaren Patronatua osatzen duten erakunde publikoak:

- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA, bi ordezkariarekin.
- EUSKO JAURLARITZA, bi ordezkariarekin.
- KULTURA MINISTERIOA, bi ordezkariarekin.
- GETARIAKO UDALA, ordezkari batekin.

Halaber, Fundazioaren Patronatua eremu pribatuko beste kide batzuek osatzen dute; besteak beste, ACME elkarteko (Asociación De Creadores de Moda de España) ordezkari batek eta hiru patrono pribatuk.

Hauek dira fundazioaren ohorezko karguak:

- Ohorezko presidentek: Espainiako Errege-erreginak.
- Presidente fundatzailea: Monsieur Hubert de Givenchy.

Aurretik aipatutako helburuetarako, Fundazioaren tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da, zeina zuzenean Fundazioak kudeatzen duen, eta 2011ko ekainaren 6an zabaldu zen Getarian.

Aurkezpena

Nazioartean onartua da Cristobal Balenciagak garrantzi handia izan duela, xx. mendeko moda-sortzaile handi eta eragin handienekoetako bat izanik. Bost kontinenteetako hainbat museotan gordetzen dira haren piezen bildumak, eta haren lanari eta pertsonari buruzko erakusketa handiak antolatu dira.



Ildo horretan, gizarteko eta kulturako hainbat pertsona ospetsuk, zenbait diseinatzaile garrantzitsuk, Balenciagaren adiskide batzuek eta geure erakundeetako hainbat arduradunek amets bat izan zuten. Amets hori honako hau zen: Balenciagaren sustraietara lotutako gune batean, moda-sortzailearen bildumarik handiena biltzea eta bere lana ikertzeko, gordetzeko eta hedatzeko erreferentziazko zentro bat sortzea.


Eta horretan gabilta. Bost urte pasatu dira Cristobal Balenciagaren museoa zabaldu zenetik, eta 313.000 pertsona etorri dira Getariara, moda-sortzailearen hainbat alderdiri buruzko bost erakusketa monografiko egin ditugu eta modarekin lotutako aldi baterako 12 erakusketa antolatu ditugu, erakusketa egonkorra mantentzeaz gain.

Mundu osotik etorritako ikertzaileak jasotzen ditugu eta lankidetzan aritzen gara, informazioa trukatzuz, beste museo batzuekin koproduzituz –adibidez, Calaisko Cité Internationale de la Dentelle museoan egindako *Balenciaga parpailan barrena* erakusketan–, edo beste museo-erakunde prestigiotsu batzuei obrak mailegatuz, esaterako, Mexikoko Arte modernoko Museoari, edo New Yorkeko Metropolitan Museumeko Costume Institute zentroari.

Eta hezkuntza-programa ere badugu, zeinaren bidez, teknikak eta trebetasunak helarazteaz gain, irizpidea landu, lanbidearen garrantzia azpimarratu eta modaren alderdi kulturalagoekiko sentsibilitatea sortu nahi dugun. Programa hori, gainera, hazten doa; publiko guztietara egokitutako gero eta eduki gehiago ditu: haur eta familientzako, modaren eta DIY delakoaren zaleentzako, arteari eta diseinuari lotutako espezialitateetako ikasleentzako eta modako profesionalentzako. Eta erabiltzaileak ere gero eta gehiago dira, batez beste ia %85 gehiago urtero.

Gure bilduma ia bikoiztu egin da azken 5 urteotan, gaur egun 2.150 erreferentzia erregistratuta izateraino; batez ere, museora jotzen duten partikularrek egindako dohaintzetatik lortzen ditugu, eta, horientzat, erabateko errespetuz eta esker onez, familiako oroigarri horiek ondare bihurtzen ditugu. Une horretatik aurrera, ondare hori erregistratu, berriztatu, kontserbatu, aztertu eta hedatzen dugu. Ondare horrek barne hartzen ditu ikuspegi estetiko bat eta bilakaera artistiko bat, teknika multzo harrigarri bat, eta berritzeko eta hobetzeko etengabeko espiritua, eta bertan lanbidearekiko grina, soiltasuna, dotorezia eta edertasuna hauteman daitezke.

Eta horretan gabiltza. Museoen denboran, lehen urratsak ematen dituzten haurrak gara, eta, horregatik, oinez jarraitzeko laguntza behar dugu. Patronatuko erakundeak, Museoaren Lagunak, jantziak eta oroigarriak ematen dituzten pertsonak eta, orokorrean, inguratzen gaituen komunitatea dira behar dugun laguntza hori, ibilera sendoagoa, ibilbide luzeagoa eta amets hurbilagoa lortzeko.



Eraren laburpena

Museoaren bisitariak eta erabiltzaileak hazten

Aurreko urtearekiko bisitarien kopurua %14 hazi da, 45.000 bisitariarekin.

Hezkuntza-programari dagokionez, are gehiago hazi da erabiltzaileen kopurua, hain zuzen ere, %35; hori ikusita, esan daiteke publiko hori nabarmen fidelizatu dela.

Baina joera positibo horretatik harago, garrantzitsua da azpimarratzea, bisitarien eta erabiltzaileen kopuruaren hazkundearekin batera, gogobetetasun-maila orokorra hazi egin dela aurreko urtearekin alderatuta, hots, 4.65/5ekoa da, 2015eko 4.35/5ekin alderatuta, gure ikerketa publikoen arabera; ikerketa horiek kanpoko ebaluazioekin berretsi dira, horiek ere oso positiboak baitira: facebook 4.7/5, google 4.6/5, trip advisor 4.5/5 eta minube 5/5.


Gainera, garrantzitsua da aipatzea «Balenciaga» erakusketarekin Mexikoko Arte Modernoko museoan egindako lankidetzak, Javier González de Duranaren koordinaziopean, eta horrek Latinoamerikan izan duen garrantzia; hain zuzen ere, 121.000 bisitari izan zituen, eta CBM izan zen museoa museotik kanpo hedatzeko erakusketa horren laguntzaile nagusia.



Bilduma zabalagoak eta askotarikoak

Museoaren bost urteko ibilbide horretan, Fundazioaren aktibo nagusia den bilduma haziz joan da, partikularrek eta erakundeek egindako dohaintzei eta gordailuei esker; halaber, erreferentzia horien izaera dibertsifikatuz joan da.

- Hala, museo zabaldu zenean bilduman erregistratutako 1039 erreferentziatatik, 2016an 2.150 izatera pasatu dira. Epe luzeko gordailuetako 194 erreferentzia izatetik, 412 izatera pasatu da. 2016an soilik, gordailu horien %5 dohaintza bihurtu ziren; horrek erakusten du museoaren lanarekiko konfiantza gehiago dagoela, eta agerikotasun handiagoa duela
- Gainera, bildumak pieza-mota berriekin aberastu dira, jatorrian museoaren funtsak osatzen zituzten jantzi, osagarri, objektu eta dokumentuak osatzeko. Horrela, nazioarteko modari buruzko 1950-1970 arteko aldizkarien bibliografia-funtsa, *toile* delakoan *Study Collection* bat, ikertzaileentzako erreplikak eta materialak eta etxeko garai bateko langileen testigantzen funts inmateriala daude orain.
- Halaber, urte honetan aurrera egin da museoaren lan dokumentalean; hala, Euskal Autonomia Erkidegoko bildumen (EMSIME) online katalogoan erregistratutako funtsak 380 fitxa berrirekin aberastu dira..



Donostia Kulturaren Europako Hiriburua izatearen testuinguruan egindako erakusketak

Autore-museo monografikoa izanik, CBMren erakusketa-programak Cristobal Balenciagaren ibilbide artistikoa, haren eraginak eta ondarea ulertzeko erreferentziatzko testuingurua sortu nahi du, eta horretara bideratzen dira museoaren eraikin nagusiko erakusketa-aretoak. Aldamar Jauregiko aretoetan artistaren eta bere lanbidearen periferiako beste eduki batzuk hedatu nahi dira, irakurketa desberdinak edo gaurkotuak ahalbidetzeko.

2016an, *Balenciaga, legatu denboragabea* erakusketaren aurkezpena mantendu zen museoaren diskursoaren ardatz egonkor gisa, eta beira-arasa jakin batzuetan beharrezko biraketak egin zitzaizkien piezei, ehunen kontserbazioa zela-eta. Horrez gain, erakusketa hauek aurkeztu dira:

Balenciaga parpailan barrena

Martxoaren 18an aldi baterako erakusketa inauguratu zen, Cité International de la Dentelle et de la Mode de Calaisekin koprodukzioan. 2015ean, «Balenciaga parpailan barrena» interes nazionaleko erakusketa izendatu zuten Frantzian, eta CBBren, CIDMren, Balenciagako Artxiboen eta bildumazale pribatuen bildumetako piezak izan zituen.

Erakusketaren komisarioa Catherine Join-Diéterle izan zen, Artearen Historian Doktorea eta Ondarearen Zaintzaile Orokorra dena.

Parpailak Cristóbal Balenciagaren ekoizpenean erreferentziatzko material gisa duen garrantziaz aritzen da erakusketa, eta material horren askotariko tipologiak eta berezko ezaugarriak aipatzen ditu, behin eta berriz erabiliak Balenciagaren formen eta tekniken etengabeko herrikuntzan.



Ikatza eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri jantziari

Urriaren 7tik aurrera, *Ikatza eta belusa. Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri jantziari* aurkeztu zen, ekoizpen propiokoa eta Igor Uría -Museoko bildumen zuzendaria- eta Ana Balda -Komunikazioan Doktoa eta irakaslea Nafarroako Unibertsitatean, historiako, argazkigintzako eta modaren prentsako espezializazioarekin- komisario zituela.

Balenciagaren sorkuntzen eta Ortiz Echagüeren argazkien arteko jardunaren bidez, hots, modaren eta arte bisualen arteko elkargunearen bitartez, erakusketak agerian jarri nahi du moda-sortzaileak inspirazio garrantzitsua izan zuela herri-jantzietan eta, hedaduraz, bi egileek sustrai tradizionalekin egindako estudioko, berrinterpretazioko eta garrantzia azpimarratzeko lana erakutsi nahi du.

Erakusketak José Ortiz Echagüeren argazkiak zituen, Nafarroako Unibertsitatetik ekarriak, eta Cristóbal Balenciagaren pieza originalak, CBMko bildumetatik eta beste mailegatzaille pribatu batzuetatik eratorriak.




Erakusketa espazioen ematea

Horrez gain, tokiko erakundeekin kolaboratu zen erakusketa-guneen lagapenerako, Donostia Europako Hiriburutzaren kultur programaren testuinguruko proiektuekin lotuta.

Lehenengoa, Atzegirekin (Adimen urriko pertsonen aldeko Gipuzkoako elkartea) egindako elkarlana izan zen; horri esker, dibertsitate funtzionala edo intelektuala duten eta/edo orokorrean gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonen osatutako taldeei sarbidea, inklusioa eta adierazpena errazteko prozesua hasi zuen museoak. Hala, prozesua eta emaitza erakusketa bidez adierazi zen museoan hilabetez, *Bizitza eta lilura* izenburupean, eta *Belle Epòque* garaiko testuinguru historikoko gaiak aztertu ziren.

Bigarren programa-lagapenak Getariako Udala eta museoa erlazionatu zituen, arkitektura, artea eta Elkanok ilde nagusi zituela; hala, 2019an Elkanok munduari bira eman zioneko V. mendeurrena ospatzeko Udala prestatzen ari den hainbat materialen garrantzia azpimarratu zen, *Amestutako Elkanoren monumentua* izenburupean.

Orokorrean, 2016ko erakusketek, Donostiaren Kultur Hiriburutzaren espirtuarekin bat eginik, kalitatearen eta nazioarteko erakundeekiko lankidetzaren alde egin zuten, museoak sektorean agerikotasun handiagoa izateko eta lankidetzaren sarearen parte izateko.



Museoa gero eta nabariagoa da kanpoan

Kanpo-ekintza modura, azpimarragarria da Mexiko DFko Arte Modernoko Museoari eta Guadalajarako Unibertsitate Museoari egindako mailegua, hots, Manuel Outumuroren 31 irudi eta 8 jantzi-pieza, toki horietan 8 hilabetez egon zen (4, egoitza bakoitzean) erakusketan sartzeko; erakusketa horrek agerian jartzen zuen moda-sortzaile getariarrak zer-nolako eragina izan duen Mexikoko xx. mendeko burgesiaren gustuaren bilakaeran, zeina erakunde horiek gordetzen dituzten margolanetan islatzen den. Balenciagaren lehen erakusketa izan zen Mexikon, Javier González de Durana izan zuen komisario eta beste bildumazale pribatu batzuen piezak zituen. Acción Cultural Española erakundearen laguntza izan zuen.

Halaber, Oviedon dagoen Asturiasko Arte Ederren Museoari pieza bat mailegatu zitzaion, zeina Luis Fernández pintoreari buruzko aldi baterako erakusketaren testuinguruan «pieza gonbidatua» izan zen. Lerro zainduko eta eskotean zilarrezko hariz eta gipurrezko lorez brodatutako errematea zuen gaueko soineko bat eskatu zuten, margolariaren lanen alboan erakusteko. Margolariak harreman estua izan zuen Cristóbal Balenciagarekin eta Ramón Esparzarekin Parisen, eta bi horiek hainbat koadro erosi zizkioten.

Era berean, bi piezako mailegua egin zaio 2016ko maiatzetik abuztura New Yorkeko Metropolitan Museoko The Costume Institutuen egindako eta Andrew Boltonek komisariatutako *Manus X Machina* erakusketari. Erakusketan, gizakiaren eta makinaren arteko dikotomia aztertu nahi zen, bai eta goimailako jostuntzaren sorkuntzan artisautzak eta teknologiak duten harremana ikertu ere.

Izen handiko beste erakunde batzuei piezak mailegatzea eta hainbat proiektutan modu garrantzitsuagoan parte hartzea lagungarria da, batetik, Balenciagaren izena hedatzeko, eta, bestetik, CBM erreferentziako gune eta bilduma bihurtzeko helburu estrategikorako eta museoen arteko lankidetzaz sustatzeko.





Argitalpen berriak

Pieza Nabarmena programako bildumakia

Museoaren atondoan nabarmendutako piezen erakusketa-programari esker, erakusketa-diskurtso batean sartzea zaila den baina erakustea merezi duten pieza «desberdinak» horretarako sortutako testuinguru batean ikus daitezke. Programaren ondorioz, ondorengo pieza hauen diptiko bildumagarriak erakutsi eta argitaratu dira:

- Parpailazko *Champagne* tunika eta gona
- Parpailazko *chemise* koktel-soinekoa
- Artile laranja-jako krespoiz egindako eguneko soinekoa
- Emakume-jantzia, bezero baten alabarentzat egina. Ingalaterran ikasten zegoen 1933an, moda-sortzailearen iloba Rosa Balenciagarekin batera.



Liburu-katalogoak

Balenciaga parpailan barrena

Cristóbal Balenciaga Fundazioak argitaratutako liburua, izen bereko erakusketarekin batera aurkeztua. Catherine Join-Diéterleren, Sophie Henwood-Niveten eta Amalia Descalzoren ekarpenak eta Hubert de Givenchyren hitzaurrea ditu. 120 orrialde, bi hizkuntzatan: euskara-gaztelania eta ingelesa-frantsesa.

Ikatza eta belusa

Ortiz Echagüeren eta Balenciagaren begiradak herri jantziari


By Architect Publications argitaletxeak argitaratutako liburua, izen bereko erakusketarekin batera aurkeztua. Ana Baldaren, Igor Uriaren, Javier Ortiz Echagüeren eta Concha García-Hozen ekarpenak ditu. 120 orrialde, bi hizkuntzatan: euskara-gaztelania eta ingelesa-frantsesa.



Modaren kultura baterako hezkuntza

Erakusketetako eta dibulgaziozko argitalpenetako hezkuntza-funtzioa osatzeko, berariazko programa bat dago, jarraian adierazitako hiru eduki-tipologiez osatuta, zuzentzen diren publikoaren arabera: eskola-curriculuma osatzen duten hezkuntza-edukiak, publiko orokorrerako –modarekiko zaletasuna duten haurrak, familiak eta pertsonak– hezkuntza edukiak, eta publiko espezializatuarentzako hezkuntza-edukiak, bai prestakuntzarako eta bai sektoreko profesionalentzako.

Hezkuntza-programaren barruan, edukien tipologia horiek finkatu eta zabaldu egin dira, eta erabiltzaile-kopurua areagotu; hala, etengabe ebaluatzen dira formatuak eta proposamen berriak txertatzen dira.



Hezkuntza-programak

Hezkuntza-programek onarpen zabala, kalitate handia eta hazteko ahalmena dute, eta askotariko erabiltzaileen gogobetetasun-maila g/10etik gora dago, kasu guztietan.

2016ko ekitaldian, azpimarragarria da eskola-programan –hezkuntza-zikloko maila guztietarako 10 jarduera egonkor ditu– nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduera berri bat sartu dela, non sormenezko elektronikak txertatu den wearable delakoak egiteko.

Halaber, indar berezia jarri da hezkuntza-premia bereziak dituzten publikoentzako ekimenetan, Atzegi elkartearen laguntzarekin; hala, egoera horietan dauden kolektiboentzako berariazko jarduerak egin dira.

Era berean, azpimarragarria da, duen garrantziagatik, publiko profesional edo espezializatuarentzat egindako programa, zeinak *Trasmisioen* ildoko Master Class bat izan duen, Javier Martínen ardurapean, gai hauei buruz: parpailaren ezaugarriak, erabilera ahalmenak eta mugak. Horiek horrela, ikastaro horien helburua ehun hori lantzeko berariazko teknikak gauzatzea zen.

Roberto Etxeberria diseinatzailearekin material tradizionalen tratamendu berritzaileari buruzko topaketa bat, eta moda garaikidearen sormen-prozesuen tradizioari eta artisautzari buruzko ikastaro trinko bat, Elisa Palominoren eskutik.

Hezkuntza-alorreko jardurekin batera, bi jardunaldi ireki antolatu dira, museoaren programazioarekin bat etorritz: lehenengoa, urtarrilaren 17an, modari eta argazkigintzari buruzkoa, eta bertan egon dira Lola Garrido, Miguel Outumuro eta Ana Balda; bigarrena, irailaren 17an, modari eta ehun-berrikuntzari buruzkoa, eta bertan egon dira Catherine Join-Deterlie eta Nicolle Costi.



Kultur aukerako gunea

Urtean zehar, hainbat eratako kultur adierazpenak egon dira museoan: zuzeneko musikako kontzertuak (4), dantza (4), moda-desfileak (3), Museoen eguneko berariazko programazioa, Ondarearen Nazioarteko Eguna, Aste Santua edota Eguberriak, aurkezpenak edo sari-banaketak (3)... Halaber, aipatu behar dira *Balenciagaren Itsasoa* programak, zeinetan Donostiatik Getariara itsasaldiz joan eta museoa bisitatzen den, edo *Balenciaga Gertuago* antolatutako planak, euskal hiriburuetatik eginak.



Komunikazioa eta mundu digitala

Bosgarren urteurrena ospatzen duen honetan, Cristóbal Balenciaga Museoak entzute-maila handia izan du komunikabideetan, zuzeneko 2.000 erreferentzia baino gehiagorekin. Baina, zalantzarik gabe, komunikazioko egoera berri honetan, non gizarte-komunikazioa eta publikoarekiko zuzeneko elkarrizketa ezinbestekoak diren, Museoko webgunea berritzea izan da urteko ekintzarik garrantzitsuena, zeina ekainean zabaldu zen.

Museoko webgunearen egitura, edukiak eta kokapena hobetu dira, eta museoaren lehenengo ahots bihurtu da ingurune digitalean. 95.000 bisitarirekin, erabiltzaileen interesa mantentzen du, 02:34 minutuko batez besteko iraupeneko saioekin eta saio bakoitzeko 3,51 orrialdeko ratioarekin (guztira 266.798 orrialde ikusita). Halaber, webgunearen bidezko salmentak hazi dira (online sarrerak); hain zuzen ere, aurreko urtean bide horretatik saldutakoak 20 aldiz biderkatu dira, eta jasota geratu da gero eta gehiago direla bisiten ondorioz bide horretatik egindako zerbitzu-eskabideak.

Museoaren sare sozialak ere finkatu egin dira, aldizkako edukiak argitaratuz eta jarraitzaileak fidelizatuz. Nabaritu da hazi egin direla iruzkinen eta elkarbanatutako edukien kopurua Facebooken, eta erantzunak eta bertxioak Twitterren. %30 inguru bi kanaletan.

Museoko buletina ere eraberritu egin da, eta hilero bidaltzen zaie museoaren lagun eta erabiltzaileei, programatutako jardueren berri emateko. Guztira 6.286 izen-ematerekin, aurreko urtean baino bi bider gehiago, tresna horri esker gure programazioa ezagutzera ematen dugu.



Informazio ekonomikoa

Denboraldi honetan, Cristóbal Balenciaga Fundazioak 345.000 euro bideratu ditu memoria honetan deskribatutako programaziora; %70 erakusketetara, %20 hezkuntzara eta %10 beste kultur jardueretara zuzendu da.

Programa honetara zuzendutakoa Fundazioak museora bideratutako aurrekontu osoaren %23 da; izan ere, aurrekontuaren gainerakoa museoaren funtzionamenduari eta zerbitzuei lotutako azpiegiturako eta inbertsioko premietara bideratzen da.

Aurrekontu horren finantzaketa honako hauei dagokie: %71 Fundazioaren patronatua osatzen duten erakunde publikoen ekarpenei; %27 erakundeak sortutako diru-sarrerari; eta gainerako %3a laguntza eta ekarpenei.

Gardentasuna

Urte honetatik aurrera, Fundazioak informazio ekonomikoa argitaratuko du, gardentasuna eta publikoarekiko harremana hobetzeko. Hau informazio ekonomiko nagusien laburpena den arren, Fundazioaren urteko kontuak egoitzan eska eta kontsulta daitezke.

Egoera-balantze laburtua

AKTIBOIA	2016	2015
A OHIKO AKTIBOIA	15.243.437	15.871.133
I. IBILGETU UKIEZINAK	6.338.621	6.721.124
Beste ibilgetu ukiezinak	6.328.760	6.681.597
Jabetza industrialak	0	19.806
Informatika-aplikazioak	9861	19721,39
II. ONDARE-ONDASUNAK	6.336.059	6.231.616
III. IBILGETU MATERIALA	2.568.757	2.918.393
Eraikinak	1.162.593	1.175.899
Instalazio teknikoak eta beste ibilgetu materialak	1.406.164	1.742.494
B EZOHIKO AKTIBOIA	341.943	400.954
II. IZAKINAK		
IV. MERKATARITZAKO ZORDUNAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	6.110	99.953
Salmentengatiko eta zerbitzuak emateagatiko bezeroak	6.110	4.937
Beste zordun batzuk		95.016
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	14.178	15.065
VIII. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	321.655	285.936
Diruzaintza	321.655	285.936
AKTIBOIA, GUZTIRA (A+B)	15.585.380	16.272.087
ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA	2016	2015
A ONDARE GARBIA	14.847.621	15.416.455
A-1 FUNTS PROPIOAK	939.904	883.833
I. SORTZE-ZUZKIDURA	1.251.343	1.251.343
III. AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKIN NEGATIBOIA	(367.510)	(426.936)
IV. EKITALDIKO SOBERAKINA (POSITIBOIA EDO NEGATIBOIA)	56.071	59.426
A-3 JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	13.907.717	14.532.621
B EZOHIKO ONDARE PASIBOIA	192.180	281.250
II. EPE LUZEKO ZORRAK	192.180	281.250
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	187.500	281.250
2. Epe luzeko beste zor batzuk	4.680	
C OHIKO ONDARE PASIBOIA	545.579	574.382
II. EPE LABURREKO HORNIDURA	0	22.509
III. EPE LABURREKO ZORRAK	97.568	96.708
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	95.530	94.034
2. Epe laburreko beste zor batzuk	2.038	2.674
VI. MERKATARITZAKO HARTZEKODUNAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	447.851	455.166
1. Hartzekodunak	421.413	440.493
2. Beste zor batzuk	26.438	14.673
3. Ordaintzeke dauden lansariak	0	0
VII EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	160	
ONDARE GARBIA ETA PASIBOIA, GUZTIRA (A+B+C)	15.585.380	16.272.087

Emaizta-kontu laburtua

DESKRIBAPENA	2016	2015
ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. ERAKUNDEAREN DIRU-SARRERAK BERE JARDUERAGATIK	1.390.079	1.342.771
a. Bazkide eta afiliatuen kuotak	4.420	5.150
b. Erabiltzaileen ekarpenak	267.439	223.901
c. Promozioen, babesleen eta lankidetzen diru-sarrerak	19.500	15.000
d. Ekitaldiaren emaitzari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	1.098.720	1.098.720
3. SALMENTAK ETA BESTE OHIKO DIRU-SARRERA BATZUK MERKATARITZAKO JARDUERA	62.693	37.430
6. HORNIKUNTZAK	(8.438)	0
7. USTIAPENENKO BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	28.106	29.307
8. LANGILEEN GASTUAK	(274.179)	(257.845)
a. Soldatak, lansariak eta antzekoak	(212.293)	(199.787)
b. Gizarte-zamak	(61.886)	(58.058)
9. USTIAPENENKO BESTE GASTU BATZUK	(1.139.319)	(1.065.351)
a. Kanpo-zerbitzuak	(1.138.667)	(1.057.459)
b. Zergak	(3.504)	(7.890)
c. Merkataritzako eragiketen ondoriozko galerak eta hornikuntzako narriatze eta aldaketa	2.852	(2)
10. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	(935.298)	(954.919)
11. EKITALDIAREN EMAITZARI TRANSFERITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINZAK ETA LEGATUAK	911.015	928.783
13. IBILGETUA BESTERENTZEAGATIKO NARRIATZEA ETA EMAITZA	-	-
14. BESTE EMAITZA BATZUK	26.806	6.037
A JARDUERAREN SOBERAKINA	61.466	66.212
15. FINANTZA-SARRERAK	64	80
16. FINANTZA-GASTUAK	(5.458)	(6.867)
B ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA	(5.394)	(6.786)
C ZERGA AURREKO SOBERAKINA	56.072	59.426
19. MOZKINEN GAINEKO ZERGA		
D RESULTADO DEL EJERCICIO	56.072	59.426
D SOBERAKINEAN ONARTUTAKO ONDARE GARBIAREN ALDAKETA	56.072	59.426
21. ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUAK	286.111	610.229
Jasotako diru-laguntzak	286.111	610.229
22. EKITALDIAREN SOBERAKINAREN BIRSAILKAPENAK	(911.015)	(928.783)
Emaiztei egotzitako diru-laguntzak	(911.015)	(928.783)
D ONDARE GARBIAREN ALDAKETAK, ONDARE GARBIARI ZUZENEAN EGOTZITAKO SARRERA ETA GASTUEGATIK	(624.904)	(318.554)
D EKITALDIKO SOBERAKINA	(568.832)	(259.128)

Aurrekontuaren likidazioa

GASTUAK/INBERTSIOAK (BEREZKO JARDUERA)	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Laguntza-gastuak eta beste batzuk			
a) Diru-laguntzak			
b) Diruaz bestelako laguntzak			
c) Kolaborazioagatiko eta gobernu organoen gastuak			
d) Diru-laguntzak itzultzea			
Produktu amaituen eta fabrikatzen ari direnen izakinetako aldakuntza			
Hornidurak			
Langile-gastuak		274.179	(7.679)
Jardueraren beste gastu batzuk		1.147.757	(86.192)
Ibilgetuaren amortizazioa		935.298	(935.298)
Ibilgetua besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza			
Finantza-gastuak		5.458	1.292
Finantza-tresnen arrazoizko balioaren aldakuntzak			
Kanbio diferentziak			
Finantza-tresnak besterentzearen ondoriozko narriadura eta emaitza			
Mozkinen gaineko zergak			
Gastuen guztizko partziala	1.334.815	2.362.692	(1.027.877)
Ibilgetu-erosketak (ondare historikoko ondasunak izan ezik)	40.000	54.911	(14.911)
Ondare historikoko ondasunen erosketak		6.580	(6.580)
Merkataritzakoak ez diren zorrak kitatzea	93.750	93.750	
Bitartekoen guztizko partziala	133.750	155.241	(21.491)
GUZTIRA	1.468.565	2.517.933	(1.049.368)

DIRU-SARRERAK	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Ondarearen ondoriozko errentak eta beste diru-sarrera batzuk		911.015	(911.015)
Berezko jardueren salmentak eta zerbitzuak ematea	261.000	267.439	(6.439)
Merkataritzako jardueren diru-sarrera arruntak	46.845	62.693	(15.848)
Sektore publikoko diru-laguntzak	1.098.720	1.098.720	
Ekarpen pribatuak (babesletza eta bazkide-kuotak)	22.000	23.920	(1.920)
Beste diru-sarrera mota batzuk.		54.976	(54.976)
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	1.428.565	2.418.763	(990.198)

IRU-SARRERAK	ZENBATEKOA		
	AURREIKUSITAKOA	EGINDAKOA	DIFERENTZIA
Egindako zorrak			
Bereganatutako beste betebeharrak finantzario batzuk			
Kapitaleko diru-laguntzak	40.000	40.000	
LORTUTAKO BESTE BALIABIDE BATZUK, GUZTIRA	40.000	40.000	

Auditoretza txostena



1

INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES **ABREVIADAS**

A La Junta del Patronato de:

FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

1. Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA**, que comprenden el balance abreviado al 31 de diciembre de 2016, la cuenta de resultados abreviada y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas

2. La Dirección de la fundación es la responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y del excedente de **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA** de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

3. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales están libres de incorrecciones materiales.
4. Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

Sayma Auditores, S.L.
Avda. de la Libertad, 10 · 7º
20004 Donostia · San Sebastián
Tel: 943 44 01 30 · Fax: 943 44 01 37
E-mail: auditores@sayma.es · www.sayma.com

a member of  International,
a world-wide network of independent accounting firms and business advisers.

5. Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

Opinión

6. En nuestra opinión las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA** a 31 de diciembre de 2016, así como del excedente correspondiente al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Informe sobre otros requerimientos legales y reglamentarios

7. La memoria de actividades fundacionales adjunta, contiene las explicaciones que los Órganos de Gobierno consideran oportunas sobre las actividades fundacionales realizadas durante el ejercicio para cumplir con su fin fundacional y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene la citada memoria de actividades concuerda con las de las cuentas anuales del ejercicio 2016. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación de la memoria de actividades con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

SAYMA AUDITORES, S.L.

Fdo: Andoni Arzallus Mendiluce

Donostia-San Sebastián a 4 de mayo de 2017

B

CRISTÓBAL **BALENCIAGA** MUSEOA

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria - Gipuzkoa - España
T 943 008 840
info@Cristóbalbalenciagamuseoa.com
www.Cristóbalbalenciagamuseoa.com

